2004-I-30
Número **125.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Maltzagaren zain?

Azken urteotan Euskal Herriko azala erabat aldatzen ari diren azpiegitura berri erraldoiek izan duten eraginetako bat betidanik ezagutu genuen Maltzagaren desagerpena izan da.

Egia da Maltzaga izeneko lekua berez egon badagoela, baina trenbideen topagune garrantzitsu izateari aspaldian utzi zion bezala, orain kamioen bidegurutze izateari ere utzi dio, gutxienez autopista berria erabiltzen duten milaka gidarientzat.

Esan genezake Telesforo Monzon zenak amestutako Maltzaga metaforikoak antzeko zoria izan duela, eta proposamen politikoak abiada bizian pasatzen direla Maltzaga gaineko bide azkarretatik, behean dagoen bidegurutze xumeari muzin eginez.

Horixe ari dira azken asteotan egiaztatzen Bergaran Telesforo beraren etxean datozen hauteskunde espainolen harira proposamena luzatu zutenak, Maltzaga osterako aspalditik euskal gizarteak espero dituen erabakiak aginduagatik.

Kontuak kontu, Maltzaga ostean posible litzatekeena agian bidegurutze irudikatu horretara iritsi aurretik bilakatu da ezinbesteko.

Izan ere, gero eta argiago ikusten baita Maltzaga bidaiari xumeentzako besterik ez dela izango topagune, goiko autopistan zehar beste helmuga batzutara abaila bizian doazenak aspaldian baztertu baitute han behean geratzen zaien Maltzagako bidegurutzea.






# 130 LANEKO ISTRIPU HILGARRI URTEAN

**Iragan astean bi langile hil ziren laneko istripu banatan. Hildakoen kopuruak bere horretan jarraitzen du eta ez dirudi epe laburrean etenik izango duenik sarraski honek. Administrazioko iturriek hildakoen kopurua behera egin duela esan arren, errealitaea bestea da: azken hiru urtetan batez-beste 130 langile hil direla urtero lan istripuetan. ELAren ustez, kopurua onartezina da eta, neurri handi batean, patronalaren axolagabekeriaren ondorioa da. Gaiari buruzko elkarrizketa egin diogu Luis Migel Saenz *Huittiri*.** *(2. orr.)*

# ELA AFIANZA SU MAYORIA

## Consigue 517 nuevos delegados y delegadas en el 2003

Durante el pasado año ELA ha sido el sindicato que más delegados y delegadas ha obtenido en Euskal Herria. En concreto, ELA ha logrado 517 representantes más, mientras que CCOO ha sumado 359 delegados y delegadas, LAB, 254, y UGT, 226.

También en Navarra, ha sido ELA el sindicato que más representantes han sumado en el 2003, con 108 nuevos delegados y delegadas, los mismos que UGT en este territorio, mientras que CCOO y LAB han incrementado su representación en 95 y 26 miembros, respectivamente.

Estos resultados siguen dando el liderazgo a ELA en Euskal Herria, donde apenas se modifica la representación sindical, ya que cuenta con el 36,12% (-0,14) de los delegados y delegadas, seguido a gran distancia por CCOO, que tiene el 20,47% (+0,20), UGT, el 18,2% (-0,22), y LAB, el 15,32% (+0,09).

Dicho liderazgo es todavía más patente en la CAPV, donde ELA mantiene la representación del 41%, por delante de CCOO con un 19,30%, LAB con un 16,49% y UGT con un 13,93%. ELA suma más delegados y delegadas que UGT y CCOO juntas.

En opinión de Eusebio Alberdi, responsable de elecciones sindicales, estos datos avalan el perfil reivindicativo de ELA en la negociación colectiva con incrementos salariales muy superiores al IPC pasado, reducciones de jornada importantes y la lucha contra la discriminación. "En un contexto, además,

## Luis Migel Saenz, laneko segurtasun alorreko kidea

# "LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO LEGEA EZ DA BETETZEN"


*Huitti*

**–Batez-beste, urtero 130 langile hiltzen dira lan istripuetan. Zer ari da gertatzen arazoari konponbide bat ez emateko?**

–Lehenik, esan behar dut administrazioaren aldetik ez direla neurri eraginkorrak hartzen. Estatistikari begira daude eta datoak nola zuritu arduratzen dira arazoari heldu beharrean. Are gehiago, arduradun politikoek ez dute inolako lotsarik sindikatuen diskurtsoa bereganatzeko zenbait unetan, baina inolako neurri eraginkorrik hartzeke. Obra publikoan zer gertatzen ari den ikustea besterik ez dugu.

Bestalde, ugazaba gehienek legedia betetzeke jarraitzen dute, eta non eta nola diru gehiago irabazi arduratzen dira soilik.

**–Honen aurrean, legedia urratzen duten enpresariei isunik jartzen al zaie?**

–Isunak oso txikiak izaten dira eta sarri askotan merkeago ateratzen zaie enpresariei isunak ordaintzea, legeak agintzen duena betetzea baino. Ia kasu guztietan isuna ordaindu eta kitto; ez dago beste inolako ardurarik, ez penalik ez zibilik.

Hori gutxi balitz, sindikatuetako ordezkariak ez dugu inolako informaziorik izaten lege urratze hauetaz eta jarraipena egitea oso zaila egiten zaigu.

**–Zein da Lan Ikuskaritzaren zeregina?**

–Ikuskaritzaren papera oso mugatua dago une honetan. Bataz-beste, 22.000 langileko Ikuskari bat dago eta hainbat zeregin administratiboen artean, Laneko Prebentziorako Legearen jarraipena dute. Aldiz, Europako beste hainbat lurraldetan segurtasun gaietarako bakarrik 7.000 langileko Ikuskari bat dago.

Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eskualmenak izan arlo honetan, ezer gutxi egiten du arazo hau konpontzeko.

**–Eraikuntza alorrean ematen dira istripu gehien, zergaitik?**

–Dudarik gabe sektorerik arriskutsuena da eta aurre egiteko ezinbestekoa da prekaritatea murriztea eta langileen prestakuntza maila hobetzea.

Lehenik eta behin, alor honetako langile guztiak –eta guztiak azpimarratu nahi dut–, prestakuntza ikastaro batetik igaro behar dute euren lanpostuak dituzten arrizkuaz jabetzeko.

Era berean, alor honetan ematen den azpikontratazio eta prekaritate neurrigabekoa murriztu behar da eta horretan zer esan handia du administraritzak.

**–Orokorki, zein neurri proposatzen ditu ELAk lan istripuei aurre egiteko?**

–Lehendabizi lortu behar dugu enpresariek arlo honetan dirua gastatzea. Asmoak paperean ikusi nahi ditugu eta segurtasunerako diru kopurua aurreikustea enpresetako balantzeetanlortu behar dugu, bestela jai du. Honez gain, ebaluaketa integralak egin behar ditugu arazo baten aurrean eta arriskuarekin zerikusi duten lan baldintzak aztertuz. Hor daude kolokako enplegua, langileen mobilitatea edo-ta azpikontratazioa.

Baita ere, urtean behin arrisku handiko enpresetan eta bi urtetik behin gainontzekoetan auditoriak egitea eskatzen dugu. Honek izan behar du termomentroa, benetan, enpresarien jarrera eta portaera ebaluatzeko. Iragan abenduan Laneko Prebentziorako Legeak jasotako aldaketak horretarako bidea zabaltzen du.

# 2003ko hauteskunde sindikalak / Elecciones sindicales 2003

## Hego Euskal Herria




## Nafarroa




## E.A.E. / C.A.P.V.




–señala Alberdi– en el que la patronal y la propia administración vasca se han aliado con los sindicatos UGT y CCOO para tratar de debilitar esta dinámica, suscribiendo acuerdos a la baja".

Nos encontramos en la CAPV –recuerda Alberdi– en un período de transición, ya que entre el 2002, año en que se renovaron más del 65% de los delegados y delegadas, y el 2006, en que se volverán a concentrar la gran mayoría de las elecciones, habrá un goteo constante que no va a modificar sustancialmente los resultados obtenidos por cada sindicato en el periodo concentrado. En Navarra, por el contrario, en el 2003 se han renovado cerca del 70% de los representantes sindicales, al encontrarse en periodo concentrado en la comunidad foral.

En este territorio, ELA ha crecido en un 0,52%, alcanzado el 21 de representatividad, mientras que UGT, que sigue siendo el principal sindicato de Navarra, obtiene el 31,70%, CCOO, el 24,13%, y LAB, el 11,67%.

Para Eusebio Alberdi, la amplia mayoría lograda por el sindicalismo vasco en los últimos años y que, lejos de perder fuerza, va consolidándose año tras año, constituye un dato objetivo que confirma que Euskal Herria tiene un marco vasco sociolaboral propio.

Egunean Al Día

## Mikel Noval eta Laura Gonzalez de Txabarri, Mumbaiko Gizarte-Foroaz

# GIZA-ESKUBIDEEN GLOBALIZAZIOA HELBURU



**Joan den astean izan da Indiako Mumbai metropolian Munduko Gizarte Foroa. ELAren izenean Mikel Noval eta Laura Gonzalez de Txabarri izan dira bertan; biltzar erraldoian bizitakoak eta Asiako beharrizan sozialak aipatzen dizkigute elkarrizketa honetan.**

**–Zer nolako arazoak bizi dituzte Indian?**

–Esaterako, Gizarte-Foroan otorduak banatzen ziren *stand* batean zegoen talde baten kasua ezagutu genuen: dagoeneko bi urte daramate greban, eta *stand* horrekin, aurrera egiteko sosak biltzearekin batera jendearen arreta erakarri nahi zuten.

Indiako sindikalistekin hitz egiterakoan ikusi genuenez, euren aldarrikapenak eta hemen, gurean, grebarik luzeenak (Maria Cristina hotela, Clece egoitza, etab.) eragiten dituzten helburuak oso antzekoak dira: enplegu duina eskatzen dute haiek, guk bezala, eta esplotazioaren aurkako borrokan dihardute.

Noski, gure ekonomia-, gizarte- edo lan-egoera Mumbaikoa baino askoz hobea da. Indian, aberastasuna soilik gune jakin eta txikietan somatzen da. Gainerakoan, bizi-baldintzak penagarriak dira, milioika biztanleren helburu bakarra bizirautea hutsa da. Han nozitzen duten gizarte- eta ingurumen-hondamendia itzela da; garapen jasangarriaren beharra beste inon baino gordinago agertzen zaigu. Eta bistan da herri aberatsen eta txiroen arteko bizi-baldintzen artean lotura badagoela. Hau ez genuke ahaztu behar.

**–Globalizazioa ez da, beraz, guztien onerako...**

–Hala da; Filipinetako Antonio Tujanek esan zuen legez, globalizazioak enplegua toki askotan hirugarren munduko mailara jaitsi du: lanpostuak ez dira seguruak (aldi baterako kontratuak, laneskubide murriztuak, malgutasun gero eta orokorragoa). Baina hausnarketa hau ez da ez soilik herri aberatsetatik egin, baita pobreago direnetan ere.

Beraz, lan arloko politika neoliberalak berebiziko kaltea ekarri du mundu guztian beharginen lan- eta bizi-baldintzetan. Hori dela-eta, lan-baldintzak hobetzeko borrokaren beharra nonahi daukagu.

**–Zer izan da, Foroan ikusi dituzuen gauzen artean, gehien harritu zaituztena?**

–Ez da erraza. Adibidez, ehundaka manifestazio izan dira, gehienak asiarrenak, hauek izan baitira laugarren gizarte-foroko benetako protagonistak.

Manifestazioetan protesta egiten zuten babes soziala murrizteko neurrien aurka, osasun zerbitzuetan ordaina ezartzeko erabakien aurka, milaka biztanle bizilekutik aldarazten dituzten proiektu erraldoien aurka, etab. Guk eta haiek kritika, salaketa eta aldarrikapen antzekoak plazaratzen ditugu.

**–Bada hango arazo berezi bat ere...**

–Bai, zuzenean ezagutu dugu kasten sistemak zer nolako zapalkuntza esan nahi duen milioika pertsonentzat: Indian 200 milioi ukiezintzat hartzen dituzte, eta era guztietako bortxak jasan beharrean dira. Emakumeak, bestalde, arrazoi sozial edo erlijiosoak medio, diskriminatuta daude. Eta bi taldeok, ukiezinak eta emakumeak, oso present izan dira Foroan; Asian gizarteko dinamika oso bizia da. Foroa Porto Alegretik mugitu izana erabaki ona da, globalizazio neoliberalaren aurkako sarea hedatzeko aukera ematen baitigu.

Iritzia Opinión



# Hipócritas

ABC dice que Carod Rovira se ha entrevistado con ETA. El director de Abc es José Antonio Zarzalejos, cuyo hermano, Javier, es secretario de la presidencia del gobierno español. Javier se entrevistó con ETA en Suiza hace algo más de tres años, por encargo de José María Aznar y en representación del gobierno español. A José Antonio, entonces, le pareció muy bien. Javier es también famoso por haber sido uno de los dos tejedores del pacto antiterrorista. El otro urdidor fue el socialista Pérez Rubalcaba. A éste, y a Jose Antonio, y a José María, les pareció bien que Javier hablara con ETA. ¡Cómo no! Y cuando una interlocutora de ETA fue detenida en Francia en plena tregua a todos les pareció bien.

A todos les pareció bien que el PSOE hablara con ETA en Argel, y no se conoce que el GAL les pareciese especialmente mal. También que Rosón en sus tiempos lo hiciera. Y es que a estos hipócritas casi todo les parece bien. Bien que el CNI espíe a políticos. Bien que los medios acuerden darles cuerda. Bien que filtren su basura... Y sobre todo, España les parece bien.

Durante los últimos cuatro años los socialistas han alimentado con ahínco el pacto antiterrorista, esa suerte de frente nacional que cierra unos periódicos, tiene a los otros haciendo instrucción, tortura impunemente y legisla ad hoc. El pacto, hay que recordarlo, fue una iniciativa socialista. Poco después decían: "es que si nos desmarcamos nos comen". Y ahora el monstruo ¡ay! les reclama coherencia: no era sólo ETA, ni la disidencia y la cultura vascas, ni el plan Ibarretxe... Ni siquiera es Carod o el tripartito catalán... Es simplemente todo el que osa imaginar otra España...

Estos son los lodos de aquellos polvos. Lo alimenten o no, el pacto antiterrorista acabará también con el socialismo. Y lo peor no es que lo hayan hecho mal. Lo peor es que no hay ningún atisbo de regeneración política en el estado. Si no hay puerta de salida, 40 años más de España uniforme e hipócrita nos esperan.

X. Anza

astekaria

## Gontzal Ballesteros, de Hainbat, ante la huelga de contratas del Consorcio de Aguas

# HUELGA EXIGENTE




*En la imagen, concentración de trabajadores de contratas del Consorcio, el pasado día 26 en Bilbao.*

**Alrededor de 200 personas que trabajan en diversas contratas del Consorcio de Aguas están en huelga desde el pasado día 26. Los trabajadores en huelga prestan sus servicios en empresas como Umano, Pridesa, Masa Norte, Aqualia, Excavaciones Gaimaz, Garbialdi, UTE Ansa o Aquagest, y exigen la equiparación de sus condiciones salariales y laborales con las de las personas que trabajan en la plantilla del Consorcio.**

**–¿Qué trabajos realizan estas contratas?**

–Los trabajadores se encargan de atender las depuradoras de aguas (EDAR) de Bizkaia, las de tratamiento del agua potable, así como del mantenimiento y reparación de la red de distribución. Los centros de trabajo están dispersos por toda Bizkaia, pero los núcleos más importantes son la depuradora de Galindo, Venta Alta y Mungia.

**–Esa dispersión no ayudará a organizar la huelga...**

–Ciertamente, el hecho de que haya múltiples centros podría constituir un obstáculo, pero están organizados en cuatro o cinco colectivos que controlan bien la situación.

**–¿Qué situación es la que ha provocado esta huelga?**

–La diferencia respecto de la plantilla del Consorcio es enorme: van desde los 6.000 euros (1 millón de pesetas) de quienes tienen salarios más altos, hasta los 12.000 euros de quienes perciben los salarios más bajos.

Hay que tener en cuenta que algunas personas, las que se dedican a la lectura de contadores para Umano, tienen salarios de 8.500 euros anuales (1,4 millones de pesetas), y esto no puede seguir así.

**–¿Y la jornada?**

–Va a ser otro de los puntos clave, porque es mucho más larga que la del Consorcio: hay contratas con la jornada del convenio del metal, pero en algún caso, como el de las personas que trabajan para Umano, la jornada anual supera las 1.800 horas.

**–¿Han planteado las empresas alguna oferta?**

–Sí, pero además de plantear un convenio demasiado largo, a cuatro años, lo que han puesto sobre la mesa queda tan lejos de la petición de los trabajadores que ni siquiera puede tenerse en cuenta. Aparte de los incrementos habituales cercanos al IPC, plantean un fondo que equivaldría a 200 euros anuales por persona. Con eso no vamos a ninguna parte.

Nuestro planteamiento es justo, pero exigente, y esto hace prever una huelga dura.

## ● Acto sindical de ELA y LAB: 10° aniversario de la manifestación por el marco vasco

Al cumplirse diez años de la manifestación por el marco vasco de relaciones laborales, que dio comienzo a la unidad de acción entre ELA y LAB, ambos sindicatos convocan una jornada conjunta para el próximo 20 de febrero. Tras la manifestación que recorrerá las calles de Bilbao, los delegados/as y militantes de ELA y LAB se reunirán en el palacio Euskalduna, donde tendrá lugar un acto sindical.



## ● Sindikatuak eta normalizazioa

ELA eta LABek, Leire Txakartegi eta Jabi Garnikaren eskutik (argazkian) sindikatuek normalizazio prozesuan jokatzen duten paperaz hitz egin zuten enpresetako euskara planen eragileentzako jardunaldian, urtarrilaren 29an Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean.

## Labur Breves...

### ● Cien días de la huelga de Caballito

Los comités de empresa de Caballito (Pferd-Rüggeberg) y de Fundiciones Ocariz han convocado para el próximo día 5, jueves, una manifestación en Gasteiz, en la que tienen previsto participar delegados y delegadas de otras empresas en solidaridad con los huelguistas. Precisamente, la plantilla de Caballito cumple esta semana cien días de huelga en defensa del convenio colectivo.

### ● Ertzainas desalojan al comité de Ocariz

El pasado jueves la Ertzaintza desalojó al comité de huelga de Fundiciones Ocáriz de Agurain, cuando intentó permanecer en la fábrica para comprobar si los puestos de los trabajadores en huelga estaban siendo ocupados por otros empleados. La plantilla de Ocariz se encuentra en huelga desde el pasado 7 de enero para exigir la readmisión de los trabajadores despedidos y la negociación del convenio.

### ● Elkartasuna Zornotza Bizirik-ekin

ELAko Gernika-Durangoko eskualde batzak elkartasuna adierazi zien gosegreba egin duten Zornotza Bizirik plataformako kideei, duela hiru urte herrian egindako erreferendumean erabateko gehiengoak zentral termikoa eraikitzearen aurkako iritzia eman arren lanek aurrera jarraitzen baitute.

### ● ELA, contra el cierre de Centrotec

ELA ha denunciado el cierre de la empresa Centrotec Telecom, dedicada al mantenimiento de equipos de telecomunicaciones, en cuyo centro de Bilbao trabajan 38 operarios. Según ELA, una pésima gestión de las condiciones contractuales con Vodafone, unido a una voracidad por aumentar la actividad, sin reparar en la calidad del servicio, ha llevado a la empresa a esta situación.

### ● Pribatizazioa EITBn

ETBn beste urrats bat eman dute pribatizazio bidean. Unitate Mugikorren lan kopuru haundi bat produkzio-etxe pribatu bati eman dizkio. Ondorioz, ETBrentzat zuzenean ari ziren langile talde bat kanporatu dute eta Lanbideo izeneko produkzio-etxeak kontratatu ditu, ETBn irabazten zutenaren erdia ere bermatzen ez dietelarik.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Franqueo concertado
n.° 08/207

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00